



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2019KO UZTAILAREN 23KOA. EBAZPEN HONEN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIRA BEHIN BETIKO IZAERAREKIN FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO ORDEZKOGAIEK ESKATU DITUZTEN LURRALDE HISTORIKOEN, DESTINOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKEREN ALDAKETAK, 2019-2020KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA TELEMATIKOARI DAGOKIONEZ.

2019ko uztailaren 5eko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, epea eta prozedura ezarri zen fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motaren inguruan eginda zituzten aukerak aldatu ahal izateko, 2019-2020 ikasturterako esleipen-prozedura telematikoei dagokienez.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2019ko uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, argitara eman ziren behin-behineko izaerarekin eskaerak dagokion epean eta forman aurkeztu zuten pertsonen aukerak Lurralde Historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motei dagokienez. Erreklamazio epea uztailaren 19tik uztailaren 23ra izan zen, biak barne.

Behin zerrenda hori argitaratuta, 18 eskaera berri jaso ziren, horietako 17 epe barruan aurkeztuta eta 1 epez kanpo. Ondorioz, 2019ko uztailaren 22ko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, argitaratutako zerrenda zuzendu zen eta erreklamazio epea luzatu zen 2019ko uztailaren 23ko 13:00a arte.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Aurkeztutako erreklamazioak.

Argitara ematea aurkeztutako erreklamazio zerrenda, baietsiak izan diren edo ez eta arrazoia adieraziz. Zerrenda hori ebazpen honen III. eranskinean azaltzen da.

Bigarrena.- Onartutako eskabideak. Egindako aukeren publizitatea.

Ondorioz, ebazpen honen bidez argitara ematen dira behin betiko izaerarekin ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi-motaren inguruan egin dituzten aldaketak 2019-2020 ikasturterako lanpostuak era telematikoan esleitzeko prozesurako, 2019ko ekainaren 4ko Aginduak ezarritakoari jarraiki, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Onartutako eskabideak I. Eranskinean jasotzen dira, kategorietan banatuta.



Ainitze Fundazuri Zugazagaren eskaerari dagokionez, Gipuzkoan lanaldi osoak besterik ez dituenek aukeratu ("N"), lurralde horretan lanaldi partzialentzat egindako Berritzeguneen zehaztapena ezabatu da bateraezina zelako.

Hirugarrena.- Ez onartutako eskabideak.

Ez dira onartzen behin betiko izaerarekin, epez kanpo aurkeztu direlako, II. Eranskinean jasotzen diren eskabideak.

Laugarrena.- Ondorioak.

I. Eranskinean jasotzen diren pertsonak 2019-2020ko esleipen-prozedura telematikoan parte hartuko dute bertan jasotzen diren lurralde historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motarekin.

Prozesu hori bukatu ondoren, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2019-2020ko ikasturtean eskatzaileek. Aukera horiek 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezkogaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

II. Eranskinean jasotzen diren pertsonak 2019-2020ko esleipen-prozedura telematikoan parte hartuko dute fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin. Aukera horiek 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezkogaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

Hala ere, kasu guztietan, bakarrik lanpostu bat esleituko zaio ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte diren horiek esleipen-prozesu telematikoan eskaerak egiten hasteko epea hasi baino hiru egun lehenago prest moduan badaude, lan-egoera hori eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenago aldatzeko aukera izango dute dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 23an.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen denari jarraiki, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.